

TRANSEXUALITATEA

Hainbeste gauza aldatuko nituzke ulertua izateko... Lasaiago biziko nintzateke, errazago.

Artikulu honen izenburua ere aldatuko nuke, baina soilik bere esanahia benetan ulertuko bazenu. Egia da inoiz ez didazula azalpenik eskatu baina azaldu egingo dizut.

Bai, TRANSEXUALA naiz! Edo hobeto esanda, transgeneroa naiz, baina ez betidanik, edo behintzat esan liteke orain dela urte batzuk arte ez dudala jakin horrelakorik izan nintekeenik ere. Ez naiz emakumea, ezta gizona ere, baina "ezer ez izatea" ulertzea oraindik zaila denez, emakumea eta gizona naizela esaten dut.

Egia esan, ez da bide erraza, baina asko ikasi dut eta zuk ere ikastea nahiko nuke.

Badakit urduri jartzen zarela nire generoa adierazi behar duzun bakoitzean ez dakizulako zer eta nola esan, **eta ez dakizu zenbat gustatzen zaidan**. Beste behin ere garbi uzten didazu "arazoa" ez dela nirea baizik eta zurea. Kasu hauetan indartsu gogoratzen dut nere baitan ez daukadala nire gorputza aldatzeko batere intentziorik, aldatuko nukeena zure begirada dela.

Beraz, ez badakizu nola deitu behar nauzun, galdetu; erantzungo dizut. Horrez gain, gogoratu zuk ere asma dezakezula zure izena, ez daukazu transexuala edo transgeneroa izan beharrik zure identitatea zure modura eraikitzeko. Gurasoek ere, poliki-poliki ulertuko dute beraiek jarritako izena aldatzea ez dela beraienganako "eraso" bat.

Emakumea ala gizona naizen jakin nahi baduzu pausa txiki bat egin eta ezer galdetu aurretik pentsatu pixka bat: zergatik jakin behar duzu norbait emakumea ala gizona den? Desberdin tratatuko duzu norbait emakumea izan ala gizona?

Jakin ezazu testu hau idazteko zugar zuzendu banaiz ere begirada asko direla aldatuko nituzkeenak; eta jakin ezazu egunerokotasuneko normatibitatean modu batera edo bestera baztertuak garenak ere asko garela. Beharrezkoa dugu, beraz, errealitatearekiko kritikoak izatea eta kritikotasun horretan oinarrituta komunitate anitz, seguru eta inklusiboa osatzea. Beraz, Zumaiako Herri Eskolako komunitatea osatzen dugun irakasle, guraso, ikasle, langileak... zergatik ez ditugu gure begiraden kritikak elkarbanatzen eta irtenbide berriak partekatzen?